

ttipi-ttapa

1990eko Martxoak 15

34. zenbakia

dohain banatzen da

Malerrekako IKA-k,
euskaltegi-barnetegi berria ireki du

Kiwi-Baztanekoekin solasean



Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu deitu 63 11 88 telefonora

HAMASEI MODULO
(ORRIALDE ERDIA)

12.000 Pzta.

MODULO BAT

900 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

NON-ZER

Malerrekako IKA-k, Euskaltegi-barnetegi berria ireki du Donezteben. Jendeak euskara ikasi eta hobetzeko mesedegarri izanen zaion azpiegitura; gure eremuan bakarra. **20. or.**



Nafarroa hainbertze kirolari ezagunen sorlekua izanik, oraindik-orain, Herri Kirol Federaziorik gabe dago. Hilabete honen 30ean, Iruñeko Kirol Etxean osatuko da ofizialki. **23. or.**



Urte batzuk joan dira Kiwia lurralde hauetan landatzen hasi zenetik. Oraindik, ematen ahal duten guztia ez omen dute eman bainan, dena dela, hemen bertan transformatzea eta komertzializatzea litzateke pausorik interesgarriena. **22. or.**



Herri-lur, auzolur edo komunalen arazo korapilotsuak pil-pilean dau-de oraindik, eta egia erran, ez daki-gu noiz argitu diren behingoz. Oraingoan Igantzin suertatu da arazoa. **8. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karnele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

R. Harribilaga, O. Txoperena, P. Apezetxea & Emma, J. Larretxea, P. Petirena, Txema Aldabe, Iban

Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, A. Olaizola, Gotzone & Antton, Mixel & Jacqueline, M. Altzuarte, P. Astiz, Malerrekako IKA, Sandino, Nafarroako O.M.T eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Tirada: 2.400 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunik.

16 ORTZIRALA

—**Etxalar**, arratsaldeko 7,30etan, Zentroan, Euskara Batordearen bilera.

18 IGANDEA

—**Beran**, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Adi.

—**Lesakan**, dantzaldia "Izadi" taldearekin.

19 ASTELEHENA

—**Elizondo**, Martxoaren 19tik 24ra, "Arte eta Kultura 90" aktibitateen barnean, kartoizko maketa erakusketa Arizkunenean.

24 LARUNBATA

—**Doneztebe**, arratsaldeko 8etan, Kasinon, Kirol Entitateen bilera. Gaia: Nafarroako Herri Kirol Federazioaren sorrera.

—**Sara**, Arratsaldeko 8etan afaria eta dantzaldia Omordian, Sarako Izarra Elkartek antolatutik.

—**Goizuetan**, Gau Pasa "Egan" taldearekin. Antolatzailea DYA.

25 IGANDEA

—**Bera**, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Arantza (Martiko).

—**Lesaka**, dantzaldia "Egan" taldearekin.

27 ASTEARTEA

—**Beran**, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Martxoaren 17-18an**, Bera eta F. Iturralde (Elizondo).

—**Martxoaren 19an**, Arantza.

—**Martxoaren 24-25ean**, Arantza eta F. Lezaun (Elizondo).

LEHIAKETAK

—**Ipuin eta Bertso Paper Lehiaketa "Txoko-Txiki 7"** Lesakako Tantarumairu Ikastolak antolatua. Epea apirilaren 9an itxiki da.

—**13. "Xalbador" sariketa**. Poesia. Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak eta Nafarroako Gobernua-ren Kultura Sailak antolatua. Epea martxoaren 31 bitarte. Saria 400.000 pza. eta lanaren argitalpena. Informazio gehiago Iruñeko Udal Arrezki Kutxan.

LAGUNTZAK

—**INSERSOren laguntzak**: Etxeak moldatzeko, anteojuak, hortz postizoak, aditzeko aparatuak e.a. erosteko. Informazio gehiago Doneztebeko Osasun Zentroan. Tramitazio lanetan, Gizarte Laguntzaileak edo Asistente Sozialak lagunduko du.

yoan

Zapatadenda

Beraketa, 13 IRUN Tfnoa. 62 15 74

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37

Tfnoa: 63 10 59

BERA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MALDAERREKA S.A.

EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

Oierregiko etxe berriak

Aspalditik ez nintzela pasatua Oierregitik eta lehengo egunean handik pasatzerakoan, hura flas-
ha!

Lehen, eraikitzen ari zirenean ikusiak nituen baina geroztik... pintatu eta kanpotik hartu duten azken itxurak... enfin!

Mugairerako bidean, azkene-ko kurba hartu eta etxe horiek ikusiz, beno, ... istripu bat izan dezakezu (ikustekoa da!)

Etxe horiek ez dute hemengo etxeen itxurarekin zer ikusirik, ez erabili dituzten koloreengatik, eta ez... ezerengatik!

A, hori bai! Etxe hauekin a-tzean dauden baserriak, beraien harmarri eta kondairekin, estali egin dituzte eta oroimenean gel-ditu dira, fosilak bezala.


Soro polita izan zela esateak, ez gaitu inora eramaten; denok

bizi behar. Baina "Principe de Viana" k, Udalak eta herriko "in-dar biziak", ez dakit nola permiti-tzen duten horrenbesteko tris-kantzarik.

Nahiz eta "gauza guztiak" hondatzen ari direla ikusi, begiak zain ditzagun, gutxienez.

Joxemiel

Sail honetan agertzeko bida-li nahi dituzuen gutunak, maki-naz idatzitako 30 lerro baino ge-hiago ezin dezakete izan. Kar-tak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezi-zen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



GAIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK


Hemen zuk behar zenuena

* Hurbil eta egoki *

- ✓ Mediku naturistarekin kontsulta
- ✓ Mehetzeko dietak eta laguntzak
- ✓ Erremedioak eritasun guztientzat
- ✓ Diabetikoentzat goxoki azukregabeak

Zatoz konfiantza osoarekin

Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA



**GOIZUETA
KIROLAK**

Kirolak
Mendi Artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA



mami's

Pre-mama
eta
jaio berrientzako arropak
lentzeria

Eliza, 10 Tfnoa.: 63 15 22 IRUN



ERLOJU ETA BITXIAK
KONPONKETA TALLERA
Merkatu karrika
DONEZTEBE



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa.: 63 05 98
BERA

ARKUPE
GOXOTEGIA

Tfnoa.: 45 20 21
IRURITA



ERLOJU ETA BITXIAK
KONPONKETA TALLERRA

Legia 1, Tfnoa: 63 07 51
BERA

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak

Vegasa®

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 59 44 00
DONEZTEBE

Igantzik Udalak, lotsagarritzat jo zuen "Gure Mendiak"koen jarrera Landatu berri ziren 1.100 zuhaitzondo ipurditik atera zituen norbaitek

IMANOL.

Martxoaren 2an Igantzik Udalak emandako prentsaurrekoan agertu zuenez, orainarte inoiz ikusi ez diren jokabideak dira "Gure Mendiak" izeneko elkarteak Onbordi alderdian egitera deitu zituenak. Egun horretan, 20ren bat izan ziren guztira -Igantzin lurak dituztenak bartz bertzerik ez ziren, gainontzekoak bertze herrikakoak izanik-, zuhaitzondoak hartu eta ipurditik ateratzeko asmotan bildu zirenak "Gure Mendiak" egindako deiari jarraituz. Egun batzuk lehenago, Onbordin egiten ari diren landaketatik 1.100en bat zuhaitzondo -zeladorearen erranetan- "hondatuak" izan ziren.

Igantzik alkatea, Juan Jose Txoperena eta Felisa Goienetxe, Severino Retegi eta Oskar Txoperena kontzejalak Nafarroako Gobernu mendi-zeladorearekin batera izan ziren azalpenak eman zituztenak. Beraien erranetan, afera hau komunalen inguruan sortutako arazoaren ikuspegitik aztertu beharke litzateke. Izan ere, orain dela 13 urte hasitako katastroaren berritze lanak oraindik erabat bukatu gabe egon arren, indar haundia jarri da gauzak ahalik eta argien uzteko. Modu horretara, -zioen alkateak-, "lur eremu bakoitzaren aurrekariak edo antezedenteak biltzen dituen lan izugarria egin

dute Etxarri eta Arriaga" letratuek; eremu bakoitzaren jabea zein den argitzeko nahitaezkoa den lana, hain zuzen ere.

94 dira guztira, Igantzin lur eremuak dituztenak

Etxarri eta Arriaga jaunak egindako azterketaren arabera, 94 dira guztira momentu honetan Igantzin lur eremuren bat dutenak. Modu horretara, "Gure Mendiak"koek egindako deiari "bakarik bartz Igantziarrek kasu egitea" nahiko argigarria da J. J. Txoperenaren ustetan. Gauzak oraindik gehiago argitzen dira, -azpimarratu zuen alkateak- PNVren NBBeko lehendakaria eta Arantzako alkate ohia den Vicente Arozena "buzo eta abarkaz jantzia eta zuhaitzondoak ateratzeko prest" ager-


tu zenean Igantzik Bentetan. "Jokabide hori ez da inondik ere zuzena" -gehitu zuen alkateak-, are gehiago, arrazoia erabiliz eta Juzgadoen bidez gauzak argituz badagoenean.

Nafarroako Gobernua bat etorri da Igantziko Udalarekin Komunalaren defentsan

Horrela agertzen da elkarrekin ateratu zuten "agiri ofizialean": "...komunalak izanik, Igantziar guztionak dira; hau da, horrexegatik dira egitan Igantzik mendiak, gure mendiak". Modu honetako arazoak -gehitu zuen alkateak-, "jatorriz Igantziakoak ez diren pertsonak sortzen dituzte gehien batean", eta oraingo honetan adibidez, "Nafarroan arrunt eragin exkasa duen partidu batek bultzatuta".



Ezkerretik eskuinera, O. Txoperena, J. J. Txoperena (alkatea) eta S. Retegi



Baztan, Bidasoa eta Male-
rrekako etxe, baserri, pisu,
bajera, eraikitze lurrak
eta eremua duten borden
berri ematen da

Jose Antonio Elizondo
EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE


ZAROS

Tfnoa.: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Udal Kultur Etxea udazkenerako prest izanen dute beratarrek



Liburutegia, Erakusketa-aretoa eta Egintza aretoa izanen ditu bertzeak bertze.

ROMAN HARRIBILAGA

Abiada onean doaz aintzinera iragan urteko urrian hasitako Udal Kultur Etxearen eraikitze lanak datorren udazkenerako bukatuta direlarik adjudikazioa egin izan zenetik emandako hamabi hilabeteko epearen arabera. Kultur Etxea, mende honen hasieran eraikia eta urteetan barrena espainiar gudalostearentzako koartela, udal alondegi eta Lanbide Eskola izan den eraikuntzan kokatuko da, hormak zutik utzi eta barrengoa hustu ondoren, birmoldaketari oso-osorik ekinez.

Eraikuntza berriaren ezaugarriak

Jatorrizko egituraren oinarrituz, "T" era eta alderdi luzeenaren neurriak 12,55 x 26,80 m eta langetarenak 11,70 x 22,25 m dituen etxe honetan Liburutegia, Erakusketa Aretoa eta Egintza Aretoa doaz, beren sarbide eta zerbitzuekin.

Egitasmoaren arabera, solairuz

solairuko deskribapena hau da: etxe-behe eta orube artean indusketa edo eskabazio bat egin da 21,50 m² azalerako sortuko den tokian kalefakzioa jarriko da, Ipar-Ekialde bazterrean kokatua.

Guztira 522,10 m²ko azalera erabilgarri dituen beheko solairuan berriz, bi sarbide izanen dira "T"aren hankako hegoaldean oinarritik hurbil bata (Hego-Ekialde) eta hanka eta besoaren aurkitzean bertzea (Hego-Mendebalde); biak espaloiak baino gorago, tartea arrapala eta harmailez gaindituz. Hankaren Ipar-Mendebaldean larrialdietarako eskailera joanen da. Lehen sarbideetik erakusketa aretoari dagokion atalondo orokorrera iritsiko da eta hemendik, eskailerazko arrapala batez, egintza aretoa aurkitzen den goiko solairura. Atalondoaren ondoan, zerbitzuak, arropazaindegia eta jantzigela. Erakusketa aretoak 160,2 m²ko azalera izanen du; bere aldetik, liburutegiak, "T"aren beso

osoan kokaturik, 205,85 m² azalerakoa, haur eta helduentzako leku bereziekin.

Bestalde, lehen solairuak 500 m²ko azalera izanen du, guztia egintza areto bezala erabiltzeko. Areto honek bi alderdi edukiko du, ikusleena bata eta eskenarena (jantzigela eta biltegia barne) bertzea. Ikusleen tokia, "T"aren hankan, 231,8 m²ko azalera, izanen du eta bere edukiera eseritako 290 pertsonentzat, aldeetara bi pasabiderekin antolatua egonen da. Aldi berean, estalpean eta lehen solairuaren artean 80,40 m² azalerarekin sortzen den solairu tartean proiektio gela bat egingen da. Etxea bertze goragailu, kalefakzio eta bertze osagarriez homitua izanen da.

Aurrekontua

Udalarekin eragile bezala "Hirurek Eraikuntzak" enpresak burutzen ari dituen egitasmo honen lanek 65.374.148 pezetatoko B.E.Z.a barne, aurrekontua dauka, finantzaketaren % 70 Bianako Printzea erakunde eta % 30 Udalarena izanez.

Errolda berria

Osoko bilkuran, Udalbatzak errolda berriari bere oneritzia eman dio. Errolda aurtengo urtarilaren 1era arte dago zuzendua, Bera herriak daukan berezko biztanlegoa 3.543ko kopurua emanez. Ondorioz, Udalak hilabeteko epea zabaldu du edozeinek Alkatetzari aurkeztu nahi dion zuzenketa egin ahal dezan.

Gernikako arbolaren urtume edo "retoño" bat Beran

Iragan martxoaren 4ean landatzea pentsatuta bazegoen ere, azken orduan bertze herriaren batzutan sortutako zenbait arazoengatik, atzeratu egin da. Egokituko zaion lekua, Herriko Etxeko plazako lorategia izanen da.

LESAKA



Denda eta negozio berriak ugaltzen ari dira

M.K.T.

Dirudienez, azken aldi hontan negozioen mundua mugitzen ari da. Honen froga dugu Udalak eman berri dituen baimenak.

Luis M. Olaetxeak, loredenda bat irekitzeko asmoa du Bittiria karrikan, eta denda honen egokitze lanetarako lortu du baimena.

Bertzalde, Eduardo Irazokik, Arretxea karrikan janari denda bat irekitzeko baimena eskuratu du,

jadanik martxan dagoen denda dotore eta txukuna.

Perotxena ahizpek Plaza Zaharrean zerbait sofistikuagoa jarri dute martxan: Mekanoterapia Zentrua; hau da, gimnasia pasiboa deritzana praktika daiteken zentru bat. Seguru arrakastatsua gertatuko dela, batez ere neguan hartu ditugun kilo horiek udarako kendu nahi izanen ditugulako, eta esfortzurik gabe baldin bada, hobe.

Udalak hiru langile hartuko ditu obrak egiteko

INEMekin daukan akordioaren bitartez, aurtan ere langabezian dauden hiru langile hartuko dira udal-zerbitzutarako eta obrak egiteko.

Arkupe eta Tantirumairu elkarte kulturalen defizitak, Udalak beteko ditu

Bi elkarte hauek 1988ko aurrekontuan udal laguntza itzuli zuten eta 1989an Arkupek 49.006 pezeta-tako defizita du eta Tantirumairu elkarte kulturalak 56.000koa, *-Arte y cultura-* programaren barruan Osakorri taldeak sortu zion defizita beraz, kopuru horiek Udalak beteko ditu.

Akordeolariek entsaiatzeko lokal berria izanen dute

Akordeolariak orain arte erabiltzen zuten lokala obratan dagoenez, Udalar Eskola Publikoaren gela bat eskatu zioten. Eskaria, aho batez onartua izan zen.

ETXALAR

Behi Aseguro Elkartearen (Kofradiaren) Batzarrea

Tximistaren adarrean 43 eta eritasunarenean 21 dira dauden sozioak

PELLO APEZETXEA & EMMA

Ohitura denez, Otsailaren lehenengo igandean eta Mitxelarreko fondan bildu ziren aurtegoan hementzi bazkalkide, bazkari inguruan gauzatzen baita Batzarrea. Kafea hartu ondoren, 1989. urteko gora-beheren berri eman zen, kontuak bame.

Azken urte horretan ezbeharrez galdutako lau behietatik bat tximis-

tak eragina izan da, Mitxelarreko, 90.000 pzta. ordaindu zaizkiolarik; bertze hiruak eritasunagatik: Santsiñenekoa, Armitzekoa eta Tonpaleneko Bordakoa, eta hirurogeitabosna mila pezeta hartu dute. Hauexek dira, izan ere, Aseguro Elkartearen momentuko ordain neurriak.

Elkartean bi adar ezberdin egeri dira, bada: tximistarena eta eritasu-


narena, hau da, tximistak erretakoa zaintzen duena bata, eritasunaren ondorioa bertzea. Tximistari diote beldur haundiena gehienek, Elkartearen tximista adarrean 43 sozio daude izan ere, 371 behi aseguratuak. Eritasun adarrean, ordea, 21 sozio eta behi aseguratuak 126.

Presidente berria hautatua izan da aurtan. Hamabortz urtez eginkizun horretaz jabetu den Tomasene-ko Joxe Antonio Indaburuk, Intzeko Bordako Josetxo Ariztegi izanen du ordezkia hemendik aintzinera. Batzarrean egin diren aldaeren ondotik, heldu den urteko Batzar nagusi eguna arteko Auzo-gizonak hauek ditugu: Orizki auzorako, Antsoneko Bordako Juan Martin eta Irigoieneko Bordako Martin; Lakain-Apezbo-

ro eta Lurritiederrarako, Basateko Bordako Isidro eta Mitxelneko Bordako Juan Frantzisko; Urritzokieta, Larrapil eta karrikarako, Bordaberri-ko Joxe Antonio eta Mitxelarreneko Juantxo.

Udalak urteko berri eman du (eta II)

4.- Mendiak: a) Urte honetako landaketa plangintza barnean hari-



tzak, bagoak, haritz amerikanoak, Larizioak eta Douglassi pinuak jarri-ko dira. Hau, bai Nafarroako Gobernuak bai Udalak bultzatuta dago.


b) Suteak erretako eremuen landaketa erre diren 800 hektareetan, 345.000 arbola kaltetu dira. Denetara 90.000 landare sartuko dira.

d) Sarriku-Arboztako pista Nafarroako Gobernuak 500 metro luzatuko du, Otsain alderat.

5.- Zahar Etxea: "Ospitaliloa" deitzen den etxea Zahar Etxea bihurtu nahi da, bertan egunero bazkari-afariak eman eta baita egon eta lo egiteko lekua ere eskeiniko zaizkio hala nahi duenari.

6.- Euskara Mankomunitatea: Bortzirietako Udal guztiak biltzen dira honetan. Funtzionamendua eta gainerako guztia biltzen dituen Estatutoak Nafarroako Gobernuaren esku daude, beronek onar ditzan.

ARANTZA



Kirol plangintza, Udalaren onespeneraren zai

JON LARRETxea

Bortzirietako koordinadorea den Mattari Altzuartek aurkeztu du Arantzarako prestatu duen kirol plangintza. Kirol plangintza honen

aurrekontua 335.000 pezetakoa da; diru hau monitore batzuren lana ordaindu eta materialea erosteko izanen zelarik. Plangintza honen arabera pilota eskuz, palaz, joko

garbia, eskubaloia eta gimnasia izanen ziren landuko liratekeen kirolak. Plangintza honekin eskualdean eta herrian egiten diren aktibitateen arteko lotura bilatzen omen da; izan ere, —Mattarik dioenez— eskualde mailan asteburuetan egiten omen dituzte aktibitateak eta herrian berri, eguneroko lanean, astegunetan jardutea omen da ideia. Kiroletaz arduratzen den zinegotziak erran digunez, bere ustez, plangintza osatua omen da baina hala ere Arantza bezalako herri tiki batentzat nahiko aurrekontu haundia ateratzen omen da; batez ere, kontutan izanez orainarte ez zela deus egiten arlo honetan.

Artxiboa ordenatua gelditu da

Hemendik aintzinera idazkariak bakarrik izanen omen ditu artxiboko giltzak. Norbaitek zeozer kon-



tsultatu nahiko balu idazkariaren laguntzaz izan beharko luke. Erabaki zorrotza beraz, garbi dago ez dutela nahasirik ikusi nahi artxiboa Udalgizonek.

Eskolarako sukaldari bat behar da

Eskolako kontseiluak otsailaren 22an bildurik, sukaldari lanpostua konkurtso publikora ateratzea erabaki zuen. Hautaketa, sikologo batek froga batzuren bidez egingen du. Es-

katzen diren baldintzak, 18 urte baino gehiagokoa izatea, euskalduna, Aranaztarra eta janari manipulazaileritza deritzan karnetaren jabe izatea da.

Juan Mari Elizondo istripuz hil

Zorigaiztoko istripu batetan hil zaigu Juan Mari Elizondo, Larauko-bordakoa, Ameriketako lurretan. Oraindik bi hilabete pasa ez direla, gure artean izan genuen bere emaz-

te eta alabarekin oporrak pasatzen. Gaur hila dagoenik sinestea ere kosta egiten da. Beti arte Juan Mari.

Kortabientos dela eta...nahi dutena erranen dute Zubietarrek baina guk berria atera bezain pronto haizeak gelditu ziren eta jadanik enteratu ere enteratu gara, zein zen euren helburua; muga jarritako mugarrria botatzea, alajaina! 110 kiloko harria haizez ateratzea pentsatzea ere... inozoa izan behar da!

IGANTZI

Medikuaren etxea, laister zaharren etxea

OSKAR TXOPERENA

Igantzi, Etxalar eta Arantzako Udalek erabaki bat hartu zuten due la urte bat gutti gora behera. Erabakia hauxe zen: herri bakoitzean zaharrentzako leku bat egokitzea - guzti hau Berako Asilo-arekin loturik joanen litzateke baina gai hori bertze batean ukituko dugu.

Igantzik Udalak zenbait aukera eskutan ibili ondoren eta Ondartxok Iruñeara joateko duen asmoa ikusirik, medikuaren etxea horretarako erabiltzea pentsatu zuen.

Arkitektoak egindako aurre-proiektuaren arabera beheko planta osoa jantoki, egongela, komunak eta sukaldeak hartuko lukete. Goiko logelak errespetatuko lirateke orain dauden bezala.

Lan guztien gastuak lau milioi t'erdikoak izanen dira eta erdia guttienez Nafarroako Gobernuak ordainduko omen du.

Xofia serorari omenaldia

Omenaldi tiki bat egin zitzaion Xofiari. Afari batetan bildu ziren

eliza inguruan dabilzan jende guztiak: katekistak, koruko abeslariak, eliz juntakoak e.a...

Xofia ez zegoen sobera ongi egun horretan eta ez zuen afarira agertzerik izan, baina etxera eraman zioten erloju eder bat oparizat.

Urte pila bat darama Xofiak serora lanetan, bai elizan eta baita San Juan Xar ermita zaintzen ere.

Eri xamar egon da azken bolada honetan baina ziur gaude laister eliza inguruan ikusiko dugula.

SUNBILLA



Bariantearen proiektua prest

Udalak eta Diputazioak akordioa lortu berri dute

PATXI PETRIRENA

Aspaldi honetan guztion ahotan dabilen gaia errealitate bihurtzeko bidean da oraingoan: Sunbillako saihesbide edo bariantea. Joan den



astean onartu zen proiektuaren aurterapena, eta heldu den urtean hasiko dira obrak, akitzeko epea 1993 urtea izanik.

Dudarik ez dago herriaren onerako izanen dela, baina horrelakoetan gertatzen den bezala kaltetuak ere izanen dira. Beraz, zuzenki afekta-

tuak gertatuko diren arazoak ahalik eta hobekien konpontzea gelditzen da orain.

Proiektuaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: Salaberria hotelaren ondotik hasi, botako den fabrikatik, Ordabaita eta Joantxenekoborda etxeen artetik Goietxearen gai-

nekaldera atera eta erreka pasatu ondoren mendian sartu, 500 metro inguruko tunel baten buruan Beobiko erreka aldera jo eta Xixtako gainean oraingoarekin bat egiteko. Aunitzenez lasaitasuna ekarriko du, bertez batzuentzat nahasmendua.

DONEZTEBE



Seguruenik, beheko aldea eta pisuren baten jabe geldituko da Udala

Alondegian etxebizitza eraikiko da

TXEMA ALDABE

Garai batean autobus geltokia zena, gero dantzalekua eta hondar aldi honetan erabilpen murrizta zuen alondegia, hagitz abudo etxebizitza bihurtuko da. Horixe onartu zuten aho batez Doneztebeko Korporazio kideek izandako azken bilkuran. Etxebizitza honek 6 pisu izanen ditu eta horretaz gain azpiko planta eta sotua. Oraindik ziur jakiten ez bada ere, beheko planta eta pisuren baten jabe geldituko litzateke udala, etxegileari eginen zaion salmentaren truk. Arestian aipatu bezala erabilpen eskasa ematen zioten alondegia-ri, Guardia Civilen Land Roverrak edukitzeko, bestatan taberna irekitzeko eta udalaren zenbait apaxu

gordetzeko bakarrik erabiliz.

Eskolako haurren mediku ikustaldiak hasi dira

Eskolako O.H.O.ko zortzigarren, bortzgarren, hirugarren eta lehenbizi-ko mailetakoko haurren mediku ikustaldiak egiten hasi dira dagoeneko Doneztebeko Osasun Zentroan. Ikustaldi hauetan, batez ere, ikusmena eta entzumena aztertzen dira. Honetaz gain, hortzen eta zintzuraren egoera begiratzen da, dentistarengana joan ala ez. Ohartarazten zaio ere bizkar hezur eta zangoetan izan ditzakeen okerretaz eta azkenik tentsio arteriala begiratu eta, luzera eta pisua neurtzen dituzte. Beharrezko txertaketak egiten dira ere zenbait kasutan.

Erran beharra da ere, eskolaintzineko lehen mailako haurtxoen ikustaldiak dagoeneko eginak dituela Osasun Zentroko pediatriak.

Arbolon landaketa Askin mendian

Dagoeneko hasiak dira 4.500 haritz; hauetarik 3.000 hemengoak eta 1.500 amerikanoak, eta 2.500 pinu larizio arbolon landatze lanak Askin mendian.

Orain landatzen ari diren toki berean, iaz 4.000 landare paratu omen ziren, baina landatzerakoan, erdi ihartuak zirela eta berriz landatzeko lana izan dute. Lan hau lau laguneren artean ari dira egiten, subastara atera zenean inortxok hartu ez zuelarik.

Mendi batzordekoa den Pello Arregiren ustez, gezurra dirudi Diputazioaren fundamendu eza, Bertiz eta Donezteben lur ausarki bereak izanik, nola demontre ez duen landare biberorik. Bere ustez, "mendia zaintzeko gogua eta laguntza behar dira eta Diputazioak laguntzarik ez du ematen". Landatzen ari diren arbolak udaletxearen kontura direla, ez da erran beharrik.

Janaridenda berria

Francisca Ariztegik janaridenda berria irekiko du abudo Doneztebeko Amezti karrikako 5.ean. Zera onartu zuen udalak bere eskaera eta arkitektoak egindako txostena ikusi ondoren.

Agotak, marginatu sozialak

Arrazoiak ez zeuden agoteengan, bertzeengan baizik



Agota hitza aproposa ez bada ere, gehienbatean iraintzeko erabiltzen zelako, ezin da bere ordeztu bertze bat jarri, gaur egun behintzat. Dena dela, interesgarriena ez da izen hori jasotzen zuten pertsona multzoa berez, horren inguruan dagoen fenomeno soziala baizik.

Fenomeno hori Gaskoina osoan hedatzen zen, Bordeletik Lengadoc-eko Tolosaraino. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan ere herri aunitzetan eman zen, batez ere Iruñetik Iparraldera, Lesakatik Erronkariraino. XV. mendetik XIX. mendera arte (Iraultza Frantzesaren ondoko Estatu Liberalak inposatu arte, alegia) iraun zuen. Arrunt fenomeno zabal eta konplexua, tokian tokiko ezaugarriekin eta urteen poderioz aldaketa batzuk jaso zituen.

Zein zen arazoa? Bi hitzetan erranda, agotek garai hartako gizartearekin bat egin nahi zutelako, eta gizarteak, berriz, utzi ez. Inolako

kontaktu fisikorik ere ukatzen zizaien zenbait tokitan, eta beti bereizteko beharra zuten. Nafarroan ez zen hain urrun ailegatu: debeku nagusiak Udal Batzarretan parte ez hartzearenak ziren —eta udal ondarenez ez baliatzea: lurrak, oihanak, egurra, belarra, iratzea, bordak egitea...— eta honen ondorioz, elizkizunetan beti azkenekoak izatea.

Gizarteak ez zuen inolako integrazioa nahi izan

Beraz, agotek ez zuten problema sortu, gizarteak baizik, inolako integrazioa nahi ez zuelako. Ijitoek, juduek edo moriskoek ez bezala, agotek ez zuten bertzeekin diferentziarik: hizkuntza —euskara, gas-

koiera—, erligioa, usadioak, jazerak, bizimodua... Marjinazioak berak markatzen zuten diferentzia, ez zuten deus propiorik.

Suposatutako jatorri *zikina* —kanpotarrak, eriak, hereseak...— ahaztu bazen eta deus diferenterik ez bazuten, zergatik iraun zuen hainbertze? Ikerlari gehienek bi galdera horiei erantzuna eman nahi izan diete: leporatzen zizkieten jatorri eta diferentziak konprobazinak dira, absurdoak batzutan. Arrazoiak ez bait dira agotengan bilatu behar, bertzeengan baizik.

Europar ere antzeko kasuak eman ziren

Mendebaldeko gizarteak ez da baxteretolerantea izan: juduak, ijitoak,

mairuak, katoliko eta protestateen arteko borroka odoltsuak... Edo, agotak bezala, Asturias-ko "Vaquerros de alzada", Palma de Mallorca-ko "Xuetas", Britainako "Kakous", Auvernhako "Marrans" eta bertze zenbait talde tiki, jatorri ezezagunekoak eta tajuzko desberdintasunik gabekoak.

Bozateko agoteentzat "Baztan Berri" izeneko hiriska eraiki zuten


Nafarroako kasuan pixka bat gehiago zehaz daiteke: agotei buruzko dokumentazio guztia auziak dira, XVI. mendetik XVIIIra arte. Bi maila agertzen dira: Iruñeko Gorteak, Auzitegia eta Obispadoa, teoriarik agoten alde, baina aginduak betearazten ez zituztenak. Lur pribatu gutti zen garai hartan, ezin zen komunalik gabe bizi, eta agotak ziren bereari tinko eusten zioten bakarrak.

Zergatik orduan urte batzuetan galera zuten praktikan ere? XVI eta XVII. mendeetan krisialdi latzak pasatzen zituzten mendialdeko herriak. Estu eta larri zebiltzan urtetan nori jarri trabak? XVIII. mendean, artoak gosete haundiak desagertarazi zituenean, auziek ez dute garrantzi handirik.

Nobleza heredatzen bazen, jatorri garbia, alegia, jatorri zikina baita. Alde horretatik arraz zaila zen integratzea. Bertze aldetik, gizarteak bere barneko tentsioak agotengan erreflejatzen zuen: sorginkeria kasu bat izan zen Burgin herri osoa afektatu zuena, eta urte hartan agotak bota zituzten. Eta ez da kointzidentzia bakarra.

Agotek, beraz, gizarte hartako egitura eta tentsioak aztertze baliogabea, eta gizarte haren ezagutzea, aldiz, agoten marjinazioa konprenitzeko.

JAVIER IGNACIO QUEREJETA



ONINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- * AGIRRE DELCLAU, M. Carmen: "Los Agotes". Príncipe de Viana. Iruñea. 1977.
- * ANTOLINI, Paola: "Los Agotes. Historia de una exclusión". Istmo. Madrid. 1989.
- * IDOATE, Florencio: "Documentos sobre Agotes y grupos afines en Navarra". Príncipe de Viana. Iruñea. 1973.
- * MICHEL, Francisque: "Histoi-

re des Races Maudites de la France et de l'Espagne". Donostia. 1989.

* ROCHAS, Vicent de: "Lwes parias de France et d'Espagne". Paris. 1876.

* MIKELARENA PEÑA, Fernando: "Situación social de la minoría Agote en la montaña de Navarra. Bidasoako Ikas-kuntza Aldizkaria 6. alea. Irun.

GOIZUETA

Antzerkiak jende asko bildu zuen

KORO ETXEBERRIA

Denbora gutxi izan arren antzeslan hau prestatzeko, oso ongi atera zen. Antzesleek dena jarri zuten jendea ahalik eta gustorago geldizedin. Antzeslan honen argumentoa Isaak Etxeberriak osatu du; laguntzailea teknika aldetik Hermaniko *Tanttaka* taldekoa den Mireia izan da.

Bestalde, holako lanak aurrera ateratzeko egin behar diren azpilantarako (dekorazioa, materiala bildu, garbiketa eta abar) herriko jende askoren laguntza ezin hobe jaso zen. Hau dena kontutan hartu ondoren oso garrantzitsua iduritu zaigu Isaaki elkarrizketa bat egitea:

Nola ausartu zara horrelako lan bat egitera?

Eguberri aurrean Euskara Bartzordeko bilera batetan, horrelako lan bat egiteko asmoa azaldu zen. Niri interesgarria iduritu zitzaidan; gainera, lehendik lan mordoska ba-

ten bilduma baneukan, herriko pasadizoak, istorioak, e.a. Hasieratik taldeari ia zer moduz iduritzen zitzairen Goizuetako denbora bateko irudia azaltzea galdetu nien. Denak konforme zeudenez, lan honen ardura neuk hartu nuen.

Antzeslana aurrera eramateko, zein arazorekin aurkitu zara?

Arazo mordoska, antzerkia egiteko asmoa bazegoen, baina ez genekien zer egin. Gu, zerotik hasi gara, gogo hutsez; gidoiak eginez, argumentoa idatziz eta taldea osatuz. Gidoiak egiten ari ginela konturatu ginen 21 antzesle behar zirela, materiale guztia lortu beharra zegoela. Baina gaur egun pausorik zailena emana dago.

Antzesleak, nola erantzun dute?

Ongi, ni oso gustora gelditu naiz osatu dugun taldearekin, batez ere azkenean gelditu garenokin. Gauza guztitan bezala hasieran asuntua berde samarra zegoen, antzesleek

ere hotz zeuden, baina gauzak aurreratzen joan diren neurrian, oso gustora gelditu gara denok.

Lan honek jendearen aldetik erantzun ona izan du, beste horrelakoren bat egitera ausartuko al zinateke?

Beno, lehendabizi behintzat hau egin dugu eta herriz herri antzeslan hau azaltzeko asmoa daukagu. Lan ikaragarria da, horrelako lan bat aurrera eramateko, erabat hortara egon beharra dago gau eta egun; oso lotua da. Baina orain utziko ditugu pixkat posoak reposatzen eta gero gerokoak.

Joan den otsailaren 22an aspaldiko partez egin zen Udalaren ohizko bilkura

Aspaldiko esaten dut, iazko azaroaren 3az gero ez zelako ohizko bilkurarik egin; bitarte horretan ospatu ziren bizpahiru ez-ohizko eta premiazkoak.

URDAZUBI

Hogeiren bat bikoteren artean jokatu da mus txapelketa

ALIZIA OLAIZOLA

Martxoaren 10ean izan zen azken saioa eta irabazleak eta gibeletik gelditu ziren bertze hiru bikoteek ere, egin zen afari eder batetan jaso zuten saria. Ondoren eta goizeko 4ak arte dantza saioa izan zen.

Hemendik denbora guttira pilota txapelketa ospatuko da, bertan Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko partaideak izango direlarik.

Aurtengo inauteriak giro ederrean ospatu ziren

Otsailaren 26an, astelehenean, goizeko 9ak aldera herriko gazte guztiak *Carretero* ostatuan bildu ziren urtero bezala gero, etxez etxe eskean ibiltzeko asmoz.

Lehendabiziko egunean herritik urrunera dauden baserrietatik hasten dira; Leorlas, Larrainta, Alkerdi eta Dantxariako parte bat egiten dute hain zuzen ere. Ibilaldi ederra beraz. Arantzako Modesto akordiolaria beurekin ibiltzen da etxez etxe mu-

sika joaz. Jana eta edana ausarki ateratzen dute etxe guztietan eta biltzen diren sosak diruzaina den Joxe M. Erasun "Zapel"ek gordetzen ditu gero denen artean afari eder bat egiteko.

Arratsaldean eta gero afalondoan goizeko 4ak aldera musika izaten da. Aldi berean mozorrotuen lehiaketa ere ospatzen da hoberenak sarituak suertatzen direlarik.

Bigarren egunean goizeko 10ak aldera Urdazubi herritik ibiltzen dira.

ZUGARRAMURDI

Pasatu dira aurten ere inauteriak

KORO IRAZOKI

Denetarik izan dela erran behar da. Afera larrixko bat izan zen aurten inauteriko kuadrilan aldaketa batzuk izan direla (batzuk ezkontza eta lanengatik erretiratu dira eta bertzalde, gazte berri pila bat hasi dira) eta baserrietan kotxez ibiltzen garenean hunek ekarri du problema: 33 lagunendakoz 3 kotxe baizik ez izaki. Gero handik-hemendik, aitari kotxea ekenduz, jendea karraiatzeko herrirat bi biaje eginez eta hola nolazpaite arrimatu ginen. Bainan heldu den urterakoz ongi pentsatu beharko da afera hau: edo nonbaite-tik jendeak bizkarra hurbiltzen du bere partetik zerbaite emanaz, edo



lehen bezala oinez egin mendia, edo batere ez egin...

Bainan "mixeri" hauen gainetik aise pastu ginuen eta besta a tope egin. Saiatu ginen baita etxe guztietara musika eta humore ederra hurbiltzera gure rugbilari, sorgin, samberak, lesionatu, gizon-aldebesak,

charleston-dantzariak eta bertze mozzorro barrakekin. Sansineko eta Iruingo-bordakoei barkamena eskatu haiengana ez ginelakoz ailegatu (heldu den urtean humore doblea eremanen dugu), eta Kaminoko-bordakoei berriz eskerrak eman hainbertze lagunei bazkaria dohainik emateagatik urtero bezala.

SARA

Iparraldeko mus txapelketa jokatzen ari

MIXEL & JACQUELINE

Urte oroz iragaiten da Iparraldean Mus Txapelketa nagusia eta hortan herri guzietan parte hartzen dute. Aurten Herriko Etxeko Edantegian eta Portuan jokatu dira partidak, hogoitamalau bikote zirela Herriko Etxean eta hamabi Portuan. Beraz, finalerako gelditzen dira alde batetik lau bikote eta bertzetik biga. Hauek parte hartuko dute Ezpeletan Martxoaren 25ean iraganen den lehen aitalan.



Gazteen Mus txapelketa Ezpeletan

Lehen aitala ginuen joan den larunbat arratsean Ezpeletako Trinke-

tean. Han ginituen Sarako sei bikote eta haietarik biga atera sira finalerako.



Herriko Etxeko edantegiko txapelketa

Hasi berria den Ostaturko txapelketa, iragaiten ari da ortzirale arats guziz, huntan hogoitamasei bikotek parte hartzen dutelarik.

Martxoaren 17an bukatuko da, finalarekin eta horren ondotik Zikiri jate baten inguruan elgarretaratuko dira musulari guziak.

Nabari da oraindik gure kulturari atxikiak girela Saran eta agian luzaz!

Ageria

Omordian Martxoaren 24ean, larunbatarekin 8etan Sarako Izarra, pilotaz arduratzen den elkarteak, bere laguntzaile eta partaide guzientzat, antolatzen du afari bat eta ondotik dantzaldia.

BAZTAN**Xorroxin irratia, emititzeko baimen ofiziala eskuratzekotan**

Honez gero, 10 urte irratigintzan

IMANOL

Otsailaren 15ean Nafarroako Gobernuak onartutako Foru Dekretuan agertzen denez, Nafarroa osorako, FMrako 7 irradi-lizentzia edo baimen banatuko omen ditu denbora laburrean. Lizentzia hoietarik bat Elizondori dagokio, eta horixe lortzea da hain zuzen ere, hamar urte luze lanean bete dituen irradi honi "beharrezkoa" zaion pausua, bere jardura sendotu eta hobetzeko.

Tramitazio epea idekita dago beraz, eta baldintzetan eskatzen denaren arabera, irratiairen helburuak, xehetasun teknikoak, programazioari dagozkionak eta izaera finkoz emisoran lan egingen duen taldearen argibideekin, txostena edo informea igorri behar dela hemen-dik ekaina bitarte. Hortik aintzinerat, prozesu luze bati emanen zaio hasiera, behin betiko baimena eskuratu artio.

Aipatu azkenik, Xorroxin Irratiak momentu honetan duen hedadura hasiera batean zeukana baino haundiagoa dela. Baztan osoaz gain, Bertizarana, Doneztebe eta Malerre-kako hainbertze herritan entzun daitekeelarik. Arrakasta berriz, begibistakoa.

**Iturri Ederrak 89ko kontuak aurkeztu ditu**

MAÑONE

Iturri Ederrak, Elizondoko ur elkarteak, 1989ko kontuak aurkeztu zituen Erlategi aretoan. Sarrerak, 5.504.226 pezetetakoak eta gastuak, 3.896.352koak. izan ziren. Beraz, 1.607.874 pezetetako irabaziak. Kopuru honi gehitzen badiogu hondasunena, 3.010.769 pzt. denetara, 1989ko abenduaren 31an, 4.618.643 pzt. zeuden. Kontuan hartu behar da 895.776 pztatako. zorra duela elkar-teak, tuberi batzuk oraindik ez bait ditu ordaindu. Zordunak ere baditu: Baztango Udalak 2.907.457, Elizondoko Herriak; 800.000 pzt. eta ber-

tzeak; 8.352.

Iaz egin ziren obren artean, Salbideko errekatik ura ekartzea da aipagarriena. Aurten Iturri Ederraren 100garren urteurreneko iturria egin nahi da, baita Elizondoko saneamendu obrak, nahiz eta azken hau obra garestia izan.

Arizkungo juradoak gazteei egoitza kendu

Arizkungo Juradoak, Juan Bautista Soulek, gazteek zuten egoitza, Goitiko Eskolakoa alegia, kendu egin die. Gazteek teilatua konpondu behar zela eskatu ziotenean, Alkatetxeari sarrailua aldatu zuen.

Lokale hau Herriko dantzariak, Antzerki taldekoek eta hainbatek,

bilerak egiteko (bestak eta Inauteak prestatzeko), materialak altxatzeko, etabar erabiltzen zuten.

Udalak, Arkupeak Elkar-teari diru laguntza ukatu

Argentinatik 50 pertsona 15 egun pasatzera ekartzeko eskatu zuen diru laguntza ukatu egin dio. Emaiteko-tan, etorriko ziratekeen baztandarrei bakarrik ordainduko omen zien eta inola ere ez globalean.

Azkena

Aznar jaunak ez du gustoko Etxalar-tarren borondatea

"Nere jarraitzaileek gehiengoa izatea nahiago nuke"

"Tristura ematen dit nere aintzi-nekoen herriak HBko Udala duela ikusteak" adierazi zuen PPko buruza-gi den Aznar jaunak Etxalarrera egindako bisitaldian; Nafarroara egi-ten ari zuen bidaia probetxatuz, bere

familiakoen hilobia ikusterat hurbil-du bait zen. Ikusi zenez, multzo haundiagoa egiten zuten berak eka-rritako "laguntzaileek" hurbildu zi-tzaizkion Etxalartarrek baino.

Holako tristurak ez dira pekatu.

EZKONTZAK

Jose Francisco Agirre Astiz eta Rika Kanakuni, Irundarra eta Japoniarra, otsailaren 2an Lesakan.

JAIOZAK

Igor Gorosterrazu Elizagoien, Iturengoa, otsailaren 22an.

Pello Bazterrika Arretxea, Iturengoa, otsailaren 25ean.

Odei Isabel Hidalgo Mendigutxia, Lesakakoa, Otsailaren 3an.

Kristine Txoperena Iribarren, Lesakakoa, otsailaren 14ean.

Alaitz Etxabide Etxeberria, Lesakakoa, otsailaren 25ean.

Maidar Etxandi Almandoz, Lesakakoa, otsailaren 25ean.

Olatz Rojo Larralde, Lesakakoa, martxoaren 1ean.

Nagore Nekane Aldabe Portu, Oieretikoa, otsailaren 23an.

Edurne Etxeberria Petrarena, Elgorriagakoa, martxoaren 2an.

Oihana Mindegia Goñi, Labaingoia, martxoaren 2an.

Eric Etchegaray, Sarakoa, otsailaren 19an.

Manuel Irigoien Urrutia, Erratzukoa, Otsailaren 16an.

Cesar Magirena Antxorena, Zigakoa, otsailaren 22an.

Iñaki Azkarraga Zubiri, Azpilkuetakoa, otsailaren 27an.

HERIOTZAK

Jose Felix Etxart Etxeberria, Urdazubin, martxoaren 4ean, 74 urte.

Salome Gorostiaga Escala, Ezkurran, otsailaren 15ean, 82 urte.

Rafael Iturbide, Igantzín, martxoaren 1ean, 72 urte.

Mamerta Zelaieta, Zugarmur-din, otsailaren 21ean, 89 urte.

Jean Lopez, Saran, otsailaren 26an.

Angela Agustina Garbisu Irigoien, Iruritan, otsailaren 27an, 82 urte.

Ana Clara Etxeberria Jaurena, Arizkun, otsailaren 28an, 84 urte.

Jose Agerralde Iriarte, Sunbilla, otsailaren 25ean.

Euskara bultzatzeko egoitza berria Donezteben

Malerrekako IKA-k, euskaltegi-barnetegia ireki du

Vliesena, garai batetan arazo ezberdinak zirela medio, arrunt ezaguna izan zen fabrika zaharrak, hemendik aintzinerara euskara “produzitzera” bideratuko du bere eginkizuna, bertan, hain zuzen, izanen baitu Malerrekako euskaltegiak bere egoitza berria.

Lau hilabete baino gehiago pasa dira, hasiera batetan amets hutsa bertzerik ez zena errealitatea bihurtzeko. Lau hilabete bai, lau behar izan dira ere, azkeneko zortzi urte hauetan hutsik egon den lokal honi goitik beheitiko aldaketa emateko.

Zortzi urtetako hautsa eta fauna kentzea eta beharrezko moldaketak egiteaz ez baita inolaz ere lan erreza, Bortziriak, Iruñea eta Gasteizko IKAk lagunei esker posible izan dugu borondatez eginiko proiektu hau aintzinerara ateratzea, atzean, jai gabeko asteburu franko gelditu direlarik.

Ezin ahanzi ere, une honetan fabrikaren jabea den langile taldearen borondaterik gabe ezingo genukela proiektua gauzatu, hauek utzi bait digute lokala.



Egoitzak, izaera bikoitza mantenduko du. Alde batetik, Malerreka euskaltegi moduan, euskara ikasi eta hobetu nahi duen bertako eta inguruetako jendeari bere lana eskainiz; eta bertzetik, kanpotik etorriko diren nagusi zein ume taldeei, ongi prestatutako instalakuntzak eskainiko zaizkielarik.

Lehengoari dagokionez, euskarak inguru honetan bizi duen egoera kezagarriari lagunduko diolakoan gaudete. Jendeak euskara ikasi, hobetu eta erabil dezan gauza erreza ez bada ere azpiegitura eskasa dagoenean. Beraz, euskaltegi honek eskainiko duen azpiegitura bultzada ederra izan dadila espero dugu.

Bertako euskaltegia ez ezik, barne-tegia ere (internadoa) bihurtu zaigu VLIESENA, kanpoko jendea euskara ikasi eta aritzera hurbilduko zaigularik, denboratxo batez bertan bizia eginez.

Honek ere, euskara gero eta guttiago erabiltzen den herri batetan, izugarritzko garrantzia har dezake. Kanpoko jende heldua euskara ikas-tera etortzeak euskararen berbalorapena sor bait dezake bertako jendeengan, gazteengan bereziki, eta honen erabilpena gehitzera bultza dezakelako. Ahantzi gabe jakina, herri txiki bati, taldetxo baten joan-etorriek emango dioten bizitasuna.

1.200 m² inguru

Baten batek pentsa dezake fabrika batek ez dituela kondiziorik ematen horrelako eginkizunetan aritzeko. Erran beharra dago aprobetxatu den aldea, garai batetan ingenieroen etxebizitzak eta bulegoak zirenak dela, hots, kondizio hobereenetan zegoena.

Kuriositatea asetzeko hona hemen "transformazioaren" ondoren gelditu dena: 3 ikasgela, 7 logela, egongela, jangela, sukaldea, 8 bainu gela, liburutegia, bulegoa, terraza eta frontoia (moldatutako almazen bat).

Dagoeneko martxan


Oraindik ofizialki ireki ez bada ere, hasiak dira bertako ikasleak kla-

seetan. Martxoaren 19tik-23ra ere lehenengo kanpoko taldea etorriko da, asteburu horretan ere, Nafarroa eta Arabako IKAKo 70 lagun, inaguraziorako eta egin asmo den bilera batetarako hurbilduko direlarik. Bi egunetako bilera honetan euskararen inguruan iharduen koodinakunde honen eginkizuna eta jokabidea zehaztuko da.

Inagurazio ofiziala

Martxoaren 23an herri osoari irekiko zaion jaitxo baten bidez emanen diogu inagurazio ofiziala Malerreka euskaltegi-barnetegia. Ea euskara bultzatzeko balio duen.

MALERREKAKO EUSKALTEGIA - IKA



Ikasgelez gain, 7 logela, egongela, jangela, sukaldea, 8 bainu gela, liburutegia, bulegoa, terraza eta frontoiaz ekipatuta dago.

Iñaki Olaiz, Kiwi-Baztaneko arduraduna

“Kiwiak hemen bertan transformatzea eta komertzializatzea izanen litzateke pausorik interesgarriena”

Kiwi Asiako lurraldeetatik, Txinako ekialdetik, datorkigun fruitu exotiko bat da. Ekialdetik mendebalderako bide hau Zelanda Berritik pasatuz burutu da, herrialde hau izan bait da hain zuzen ere, fruitu hau hobetzen eta zabaltzen biziki saiatu dena.

Elikagai moduan bitamina ugari du, estresaren aurka komenigarria omen da; eguneroko presak, estuak eta egonezinak baretu egiten omen ditu.

Bestalde, fruta sano eta ekologikoa da, kalte egiten dien zomorroak hiltzeko ez bait du inolako kimikarik behar.

Duela urte guttirarte erabat ezezaguna zen kiwia gure lurralde honetan, nahiz eta adituek erraten dutenez hemengo lurra eta klima arrunt egokiak izan landare hau landatzeko.

Baztanen egin ziren lehendabiziko kiwi landaketak eta aintzidari Iñaki Olaiz izan zen. Berarengana jo dugu zenbait xehetasun jakin nahiean.



1985ean egin zen Lekarotzen lehen kiwi landaketa

Nola bururatu zitzaizun kiwiak landatzen has-tea?

Beno, ni lehendik ere zerbait ibilia nintzen horretan eta lur zati bat bila nenbilen aspalditik, landaketa bat egiteko asmoz.

Lurra uzten ahal zidana ere interesatua suertatu zen ideia hau aintzinera eramateko eta Zelanda Berriko bere lagun baten bitartez eta gero hurbildu zitzaizkigun beste bizpahirekin batera Kiwi Baztan sortu genuen. Beraz, hasiera batean bakarrik egiteko

asmoa nuena, elkarte batean bihurtu zen eta orduandik orain arte.

—Noiz landatu ziren lehendabiziko landareak?

1985ean Lekarotzen egin genuen lehendabiziko landaketa. Horiek 1988an dextente eman zuten, baina gero Azaroan egin zituen izotzek, urte bete atzeratu digu produkzioa. Iaz arrunt gutti eman zuten.

—Zenbat hektarea dau-de Baztanen kiwiaz landatuak?

Momentu honetan 30 hektarea, gutti gora behe-ra, aurtan bertze 6 gehiago

sartuko ditugu, beraz hektarea kopurua gora doa.

—Nekazarien aldetik, nolako etorkizuna ikusten diozu kiwiari?

Arrunt motela. Oraindik jende aunitzek hemen ez dugula fruiturik bilduko uste du eta horrexegatik ez dira ausartzen landatzera. Bertze aldetik kontutan hartu behar da hemen baserritarra abeltzantzian saiatzen dela eta gainera landaketa bat egitea garesti samar suertatzen dela. (Hektarea bat 4.000.000-pezeta inguru). Beraz, zein etekin atera-

tzen den ikusi arte, nekazaria ez da kiwia jartzen hasiko.

—Jakín dugu kiwia transformatzeko industria eratzeke asmoa badagoela?

Bai hori 30 hektareatik gorako landaketa bat edukiz geroz posible da, baina horretarako errendimendu osoan egon behar du.

Zelanda Berrian moduloak 50 hektareakoak dira. Dena den, hori aintzinago emanen den pauso bat da.

PELLO ASTIZ

Nafarroako Herri Kirol Federazioa sortzekotan dago


Martxoaren 30ean, Iruñeko Kirol Etxean egingen da

Gaur egun, Herri Kirolan diharduten kirolaririk hoberenetakoak alde honetakoak diren Perurena, Saralegi, Arretxea, Mindegia e.a. ditugu.

Guzti hauek nafarrak izan arren, Herri Kirolari dagokionez, Euskalerriko zazpi probintzietatik gurea izanen da mugimendu guttien duen lurraldea; ikustekoa da bertze lurraldeetan egiten dituzten txapelketa, apostu, promozio kanpaina e.a. Baina Nafarroan zer?.

Nafarroan, Herri Kirolaren egoeraz kezkatutik, orain dela urte bat kirol koordinatzaileok bide luze bati ekin genion. Horrelaxe, Herri Kirolaren inguruan mugitzen zen jendearekin batzorde bat sortu genuen.

Bilera batzuren ondorioz proiektu orokor bat prestatu genuen aintzinerat eramateko. Baina Nafarroako Gobernuko arduradunekin kontaktuan jarri ginenean, ezusteko batekin



aurkitu ginen: *"Nafarroan oraindik ez zegoen inongo Herri Kirolerako Federaziorik"*. Federazioaren beharra ikusi ondoren, estatutoak egiteko "gestora" bat osatu zen, bertan gure eskualdeko jendeak parte hartzen duenari horretan.

Bide luzea izan da eta oraintxe da momentua Nafarroako Herri Kirolerarako Federazioan guk nahi dugun jendea sartzeko, kandidaturak aurkezteko epea Martxoaren 28a izanen delarik.

Euskalerriko Herri Kirolletako finala Donezteben ospatuko da Irailaren 2an

Aurten Nafarroari tokatu zaio txapelketa antolatzea. Euskalerriko Federazioa kirol koordinatzaileekin jarri zen kontaktuan eta 4. edizioa Donezteben egitea erabaki zen. Txapelketa hau ikusgarria izanen da, herrialde bakoitzeko kirolari hoberenak etorriko bait dira beren herrialdea defenditzera indarrak neurtzeko momentuan.

Egingen diren proben zerrenda hauxe izanen da: *Soka tira*: pisu li-

brea eta 640 K., *ingudea*: probintzia bakoitzatik kirolari bat, *Zakulari*: probintzia bakoitzatik 3 kirolari, 80 kiloko zakuarekin 120 metro, *Orga jokoa*: 350 kiloko orga batekin, *Trontzalariak*: 10 korte, 45 pulgadako enborrak, *Lasto altxatzia*: 2 poleaz, 2 minutotan 45 kiloko fardoarekin, *Txingak*: 50 kiloko txingak 28 metrotako luzeran ibili, *Harrijasotzea*: 100 kiloko zilindrikoarekin.

Bi hilabete geldirik, hasieratik abiatzeko

Azkenean —gehienetan bezala— Nafarroako Gobernuak soluzio eder-rra eman digu; hau da, Iñigo Doria berriz hartzeko beharra izan du ez baita bi hilabete hauetan inor ere aurkeztu lanpostu hau betetzeko.

Horrela, bada, *"bi hilabete galdutako hasierako puntura ailegatzeko"*. Agurrik beroenak gure lankide den Iñigo Doriari berriz gurekin egoteagatik eta hemendik aintzinerat saiatuko gara aurtengo plangintza ahalik eta hobekien egiten, denon onerako.

MATTARI ALTZUARTE

Zaporeatuz edan behar da eta ez “tragoka”

Trago bat bota behar dugu adierazpenak berak, garbi aski erraten du bilatzen duguna bete behar bat hasetzea dela. Hala ere, ez da komenigarria alkoholaren bila behar batek bultzaturik hurbiltzea, jarrera sozial eta ludiko batetik baizik. Ardoa, *hiru zentzumenak* erabiliz edaten ikasi behar dugu. Horrela bakarrik guregana ditzakegu beregan dituen ñabardura guziak. Ardoaren aintzinean usaimena da martxan jartzen zaigun lehen zentzumena. Beraren bitartez zeremonia berezia hasten dugu, ardoaren garbitasuna, kolorea, dizdira eta abar apreziatuz edateko prestatzen gara. Gure bigarren sentsazioa usaimena da. Basoa emeki astintzen badugu *ebaporazioa* erreteko, berehala hurbil dezakegu sudurrera eta ezari-ezarian barneratu botatzen dituen usain gozoak. Azkenik, gustamenaren bitartez dastatu ahal dugu bere kalitatea. Ardo trago ttikia ahoan sartuz eta bertan edukiz, bere lehortsasuna, goxotasuna, indarra, gorputza etab. aprezia dezakegu. Guzi honen ondoren bakarrik merezi du pena edatea. Edale onak kalitatea bilatzen du. Edale txarrak berriz, kantitatea, drogaren bitartez penak itzaltzeko.

NAFARROAKO
OSASUN MENTALEKO TALDEA



Hauteskundeak Nicaraguan

Cesar A. Sandino: "bakarrik langileak eta nekazariak joanen dira bukaeraraino"

Hameka urte iragan dira sandinistek Somoza poteretik kendu, diktadura ezabatu eta poterea eskuratu zutela. 11 urte hauetan FSLNak lan itzela burutu du nazioa birrerakitzeke herriaren partaidetzan oinarrituz. 11 urte hauetan Nicaragua ispilu bat izan da mundu osoko iraultzaileentzako, bertako militanteen argazkiak leku orotan ikusi ahal izan ditugu; fusila bizkarrean lurra eregiten, eskolak eta eritetxeak eraikitzen, ilunabarrez kitarra jotzen edota etorkizunerako proiektuak eztabaidatzen.

Joan den hilean, sandinistek hauteskundeetara dei egin zuten. Hauteskunde hauetan eman diren emaitzen ondorioz, amerikar inperialistak, beuren aliatuak eta mundu osoko indar eskuindarrak eraso gogorra burutzen ari dira komunikabideen bitartez. Guzi horregatik beharrezkoa ikusten dugu eztabaida zuzentzea eta hauteskunde hauen ondorioz geratu den egoera argitzea.

Propaganda interesatuen bidez amerikar inperialista eta mendebaldeko aliatuek helburu hauek lortu nahi dituzte:

- Ertamerikako mugimendu iraultzaileak indargabetu eta mundu osoko askatasun mugimenduak ezabatu.
- Askatasun mugimenduak gaur egun baliorik gabe geratu direla demostratu

- Herriek beuren etorkizuna zuzentzeko duten eskubidearen kontzientzia galdu araztea.

Amerikar administrazioak eta UNOko eskuindarrek, sandinistek hauteskundeak irabazteko kasua au-



reikusiz, bada ez bada ere, hauteskundeak balioa kuestionatu zuten. Honekin zera lortu nahi zuten:

- Sandinistek indarra kentzea.
- Sandinisten negoziatzeko ahalmena ahultzea.
- Nicaraguar herriaren kontrako guerra eta ekonomi eraso mantentzea.
- UNO erakundearen inguruan elkartzen ziren eskuindar indarren banaketa gerta ez zedin ziurtatzea.

Hauteskunde hauetan eman diren emaitzekin ustelduta dauden eskuindar indarrak arnasberritu dira, baina honek ez du inondik erran nahi sandinistek menperatuak daudenik zenbait komunikabidek adierazi nahi duten bezala. Horregatik, beharrezkoa da zenbait manipulazioetan ez erortzea:

- Sandinistek ez daude derrotatuta eta are guttiago nicaraguar herria itxaropena galdurik. Sandinistek poterera igo zirenean, deuseztaturiko eta zorrez beteriko herria aurkitu zuten. Geroztik, probokazioa, eraso militarrek, ekonomi-gune nagusie-

nen ezabaketa, erahilketak etab... eguneroko kontuak izan dira guzi horiek Estatu Batuak bultzatu eta babesturik. Honekin herriari indarra kendu nahi zioten eta berriro boterea eskuindarren eskuetara itzularazi. Horregatik erraten zuten sandinistek irabazten bazuten gerrak jarraituko zuela, eta honekin batera gosea eta miseriak —Demokrata-liberalek (UNOkoak alegia)— irabazten bazuten, ordea, pakea, janarien ugaritasuna eta aurrerapena lortuko zela zioten. Baina, nicaraguar burgesiarentzako pakea hitza erabiltzen dutenean sandinisten ezabatzea erran nahi dute eta aurrerapena hitzarekin herri xehearen explotazioa.

- Sandinisten mezu iraultzailea guzien burutik kendu nahi digute, azken urteotan aunitzen norabide, itxaropen eta herri zanpatuen ispilu izan direlako.

Sandinistek eraman duten taktika guztiz zuzena izan da. Nahiz eta eskuindarrak hauteskundeak irabaztea gertatu (gertatu den bezala) Nicaraguak nazioarteko blokea haustea lortuko zuen eta amerikar inperialistak politikoki argudio gabe geratuko ziren beuren eraso aintzina era-mateko.

Sandinistek esperientzia aberatsa bereganatua dute, eta erakunde sendoa eta prestatua daukate.

Etorkizuna nicaraguar herriarena da eta goizago edo beranduago amerikarrek eseri beharko dute negoziatzera eta onartu nicaraguarren barneko arazoetan ezin dutela muturra sartu.

SANDINO

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Lesaka.** Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 17, 4.D Tfnoa: 630964/257802

-**Bera.** Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743

-**Bera.** Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532

-**Lesaka.** Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

LANA

-**Frantzes klaseak** ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.

-**EGB klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.

-**Gitarra, baxua eta bateria klaseak** ematen dira. Interesatuak hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

SALEROSKETAK

-**Udaberrirako bizikleta** baten jabe izan nahi baduzu hemen duzu aukera. Nahiko ongi dago eta merke merkea, 25.000 pztatan. zurea izan daiteke. 631188 Tfnoa.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-**Pentax argazki makina** baten zat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gaeuz.

-**Frigorifiko eta labadora** baten beharrean nago. Modemoago bat erosi eta zaharra non sartu ez badakizu, nik eginen diot lekua. Diru kontua konponduko dugu. Tfnoa. 637796 Patxiz galdetu.

DENETARIK

-**Irrati antzerkilariak** behar ditugu. Bai publizitatea zein irrati-nobelak egiteko. Xorroxin Irratia. Elizondo Tfnoa.: 581226.

HARREMANAK

-**Eskuminak Lesakako** Josetxo, Mañolo, Marcos, Etxepe, Silvestre, Tomas, Iturria, Salva, Joxe, Luis, Joxeluis, Xixo, Ketzu, Suelto, Julian eta anaia, Iñaki, Txiri, Ordoki anaiak, I. Txoperena, Morfi, Makatze, Kotteka, Loiarde, Txoltzan, Javi... eta tabernariei. ERANDIOTIK.

-**Euskaldunoi:** saia gaitezen euskaraz mintzatzen, ez bait gara ohar-tzen horrela segitzen badugu 50 urte baino lehenago hagitz gutxi adituko dela euskara gure hizkuntza.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU. Testua: Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188	ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!! IZEN-DEITURAK HELBIDEA HERRIA Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188
--	--

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren, nafar erranairu baten aitzinean gertatuko zara.

1	E 1	E 10	A 3	D 2	A 4	E 6	
2	A 6	A 8	B 6	D 10	E 3	B 13	
3	A 5	D 6	D 1	D 11	E 12	B 9	
4	A 1	B 5	E 11	D 5	A 6	B 2	
5	B 4	D 9	E 4	B 1	B 11	D 3	
6	E 8	A 12	B 7	E 9	A 7	A 10	D 8
7	D 13	B 8	E 2	E 7	B 12	A 13	A 2

1. Eskobatzeko tresna.
2. Tripa handia.
3. Apalak, ttipiak.
4. Mordoska handia.
5. Maingu.
6. Haragi saltzaile.
7. Premia.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
A													
B													
D													
E													

BORTZIRIAK

Esker eskuin eta goitik beheiti, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Altzo.
2. Merkatua.
3. Gerritik behetiko jantziak.
4. Akabatu, animaliak hil.
5. Aintzira.

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Gaizto.
2. Farrea.
3. Harreman.
4. Aitona, hitz elkartean
5. Bakoitzak lau.

196
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

320.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**